

# EUSKADIN JAIOTAKO GAZTEEN MIGRAZIO- MUGIMENDUEN AZTERKETA

Ekaina

# 2016



**Gazteen Euskal Behatokia**

Iturri hauetako datuak aztertu dira:

- Atzerrian bizi diren espainiarren errolda (PERE), Estatistikako Institutu Nazionalarena
- Migrazio-mugimenduen estatistika, Eustatena
- Geure azterlanak

## 0. Hiru datu-iturri

Krisi ekonomikoa hasi zenetik, gizartean areagotu egin da gazteen emigrazioaren kezka. Gazteria-politiken ardura dutenentzat, errealitate hori ezagutzea lehenetsi da. Zenbat gazte bizi dira atzerrian? Emigrazioa handitu ote da langabezia handitzearen ondorioz? Horrelako galdera oinarritzkoak ere ez dira erantzuten errazak.

Administrazioaren erregistroek eta migrazioaren nondik norakoaren berri ematen duten estatistikek ez dute islatzen errealitate osoa, ez kopuruak, ez eta, bereziki, emigrazioaren ezaugarriak edo gazteak atzerrira joateko arrazoiak ere. Beste alde batetik, begi-bistakoa da gai hau ikertzea zaila dela ohiko metodologiak erabilia: gazte horien lagin adierazgarri bati inkestak egitearen bidez, kasu honetan ezin delako protagonistengana jo fisikoki.

Erabil ditzakegun iturriek mugak dituztela jakinda, txosten honetan saiatuko gara Gazteen Euskal Behatokiak eskura dituen baliabideekin bildu ahal izan dituen datuak azaltzen.

Lehenengo eta behin, PERE delakoaren datuak aztertu ditugu (atzerrian bizi diren espainiarren erroldakoak), Gazteen Euskal Behatokiaren eskaerari erantzunez Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) emanak, jakiteko Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako 18-34 urte bitarteko zenbat pertsona egon diren atzerriko ohiko egoiliar gisa erregistratuta 2009-2016 bitartean, eta urte bakoitzean zenbat inskripzio berri egin diren.

Bigarrenik, Migrazio-mugimenduen estatistikaren beste azterketa bat egin dugu, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) emandako datuetan oinarrituta. Horrela, jakin dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako zenbat gazte joan diren atzerrira eta urte bakoitzean zenbat gazte itzuli diren atzeritik. Bi datu horiekin, gainera, atzeritik itzulitako tasa kalkulatu da.

Gazteen Euskal Behatokiak egin dituen azken inkestetan dugu hirugarren informazio-iturria. Funtsean bi informazio eskaintzen dizkigute. Lehenengoa, atzerrian lan egin eta gero EAEn itzuli diren gazteen kopurua (2015eko azaroan enpleguari eta emantzipazioari buruz egindako inkesta batean lortutako datua da). Eta bigarrena, zenbatetsitako datu bat, alegia, EAEn jaiotako 35 urtetik beherako zenbat pertsona ari diren gaur egun atzerrian lanean. Azken datu hori 2016ko lehen hiruhilekoan lortu da, kanpoan dauden gazteen neba-arrebek emandako informaziotik abiatuta, eta ez dira kontuan hartu atzerrian ikasten ari direnak, ikasketak lanen batekin uztartzen dituztenak salbu.

Beheko taulan ageri dira aztertutako iturriak eta eskaintzen dituzten datuen ezaugarriak eta mugak.

### Azterketarako erabilitako iturriak eta horien mugak

Estatistika	Egilea	Metodologia	Datuak	Mugak
<a href="#">Atzerrian bizi diren espainiarren erroldako (PERE) estatistika</a>	INE	Adierazten du zenbat diren ohiko bizilekua atzerrian duten pertsonak (atzerrian urtebete baino gehiago daramatenak edo egotekoak direnak). Estatistika hau 2009an hasi zen egiten, eta urtero urtarrilaren 1eko datuak ematen ditu. Espainiako nazionalitatea dutenak eta Espainian jaiotakoak bereiz daitezke.	EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko zenbat gazte bizi diren atzerrian, sexuaren, adinaren, jaio diren herraldearen arabera, 2009tik hasi eta 2016ra arte.	Ez ditu barruan hartzen atzerria joandako gazte guztiak, ez dutelako denek atzerriko herrialde batean urtebete irauten edo euren egonaldia kontsul-bulegoan jakinarazten. Ez dakigu atzerria joandako gaztea lanean edo ikasten ari ote den, edo lanik gabe dagoen.
<a href="#">Migrazio-mugimenduei buruzko estatistika</a>	Eustat	Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan abiapuntua edo helmuga duten egoitza-aldaketei buruzko informazioa ematen du, biztanleen udal-errolan oinarrituta.	EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko zenbat pertsona joan diren EAetik atzerria urte bakoitzean. EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko zenbat pertsona etorri diren EAera atzeritik.	Ez ditu barruan hartzen atzerria joandako gazte guztiak, ez dutelako EAetik atzerria doazen pertsona guztiak baja eskatzen biztanleen udal-errolan. Ez dakigu atzerria joandako gaztea lanean edo ikasten ari ote den, edo lanik gabe dagoen.
			Bi datu horien bidez, EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteen itzulera-tasa lortzen du Gazteen Euskal Behatokiak, alegia, atzeritik itzultzen direnen tasa.	Urte batean irten diren gazteetatik urte berean ehuneko zenbat sartu diren adierazten du, baina horrek ez du esan nahi pertsona berak direnik. Gainera, kalkulatik kanpo uzten ditu 34 urte betetakoan itzuli direnak.
“EAeko gazteen enplegua eta emantzipazioa 2015” azterlana (txostena egiten ari da)	Gazteen Euskal Behatokia	EAeko 35 urtetik beherako gazteen lagin adierazgarri bati egindako etxex etxeko inkesta. 2015eko azaroan egindako 2000 inkestatan oinarrituta dago.	Atzerrian lan-esperientzia izan duten eta itzuli diren EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteen kopurua eta ezaugarriak.	Atzerrian inoiz lan egin duten eta EAera itzuli diren gazteei buruzko informazioa bakarrik ematen du (atzerrian zenbat denbora egin duten kontuan hartu gabe). Baliteke horien ezaugarriak eta gaur egun atzerrian lanean ari diren, hau da, itzuli ez diren gazteenak berdinak ez izatea.
“Euskadiko Gazteak 2016” azterlana (txostena egiten ari da)	Gazteen Euskal Behatokia	Euskal Autonomia Erkidegoko 15-29 urte bitarteko gazteen lagin adierazgarri bati egindako etxex etxeko inkesta. 2016ko otsailean eta martxoan egindako 1500 inkestatan oinarrituta dago.	Gaur egun 35 urtetik beherako zenbat gazte ari diren atzerrian lanean.	Gaur egun atzerrian lanean ari diren gazteen kopurua zenbatesten du, EAEn dauzkaten neba-arrebek adierazitakoa oinarri hartuta. Beraz, ez dira kontuan hartzen neba-arrebarik ez dutenak edo inkestako laginaren adin-tartetik (15-29 urte) kanpoko neba-arrebak dituztenak.

## 1. Atzerrian bizi diren espainiarren erroldako (PERE) estatistikaren azterketa

Atzerrian bizi diren espainiarren erroldako (PERE) estatistika kontsul-erregistroetako inskripzioez elikatzen da, eta ohiko bizilekua atzerrian duten pertsonak (atzerriko herrialde batean urtebete baino gehiago daramatenak edo egotekoak direnak) zenbat diren erakusten du. 2009tik urtero argitaratzen da PEREko fitxategi nagusiko informazio estatistikoa, urtarrilaren 1eko erreferentziarekin.

PEREko datua gaur egun atzerrian bizi diren gazteen gutxieneko kopurutzat har daiteke, kontuan izanik ez direla atzerriratzen diren pertsona guztiak erregistratzen kontsul-bulegoetan

Estatistika horrek urtero ematen ditu atzerrian bizi diren nazionalitate espainiarreko pertsonen datuak eta egindako inskripzio berriak. Espainiako nazionalitatea duten pertsonak (jaioterra edozein dutela) eta Espainian jaiotako pertsonak (nazionalitatea edozein dutela) bereiz daitezke. Bereizketa horrek garrantzi handia du, Espainiako nazionalitatea eduki eta atzerrian bizi diren pertsonetatik gehienak atzerrian jaiotakoak direlako eta gero hartu dutelako Espainiako nazionalitatea. Hala, Espainia osoko 2016ko urtarrilaren 1eko datuek erakusten dutenez, Espainiako nazionalitatea eduki eta atzerrian bizi diren pertsonetatik, Espainian jaiotakoak % 33,3 dira, bizi diren atzerriko herrialdean bertan jaiotakoak % 59,5 dira, eta beste herrialde batean jaiotakoak % 6,9 dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan jaio, 18-34 urte bitarteko adina izan eta atzerrian egoiliar gisa erregistratuta dauden gazteen kopurua aurkeztuko dugu azterketa honetan.

### **Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako zenbat gazte bizi dira atzerrian, eta zer bilakaera izan du adierazle horrek 2009tik?**

Euskal Autonomia Erkidegoan jaio eta atzerrian bizi diren gazteen kopurua jakite aldera, Gazteen Euskal Behatokiak atzerrian bizi diren espainiarren erroldako estatistikako datuekin neurrira egindako ustiapena eskatu dio INEri.

Ohartarazi behar da gazte askok beste herrialde batzuetara joateko aukerak arakatzen dituztela bizilekua herrialde horietan finkatu gabe. Gazte horiek ez daude atzerrian bizi diren espainiarren erroldan. PEREk eskaintzen duen kopurua, beraz, ez da atzerrian dauden gazteen kopuru osoa. Hala ere, Espainiatik alde egin duten pertsonen gutxieneko kopurutzat har daiteke, eta fenomenoaren bilakaeraren arrastoa ematen digu.


2016an, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako 18-34 urte bitarteko 3.938 pertsona bizi dira atzerrian, hau da, EAEn jaio eta PEREn atzerriko egoiliar gisa erregistratutako pertsona guztien (adina gorabehera) % 12

Datu horiek, gainera, ohiko bizilekua atzerrian duten gazteen kopuruaren hurbilketa dira, baina ezin ditugu ezagutu gazte horien egoera eta ezaugarriak –ikasketa maila, lan-egoera, eta abar–, erregistroan inskribatuaren sexua, adina, jaio den probintzia eta bizi den herrialdea baino ez direlako jasotzen.

INEk emandako datuen arabera, 2016ko urtarrilaren 1ean, EAEn jaiotako 32.957 pertsona bizi ziren atzerrian, eta horietatik 18-34 bitarteko gazteak 3.938 ziren, hau da, pertsona guztien % 11,9 ziren.

EAEn jaiotakoak izan eta PEREn erregistraturik dauden pertsonen kopuruak goranzko joera izan du 2009tik 2016ra arte biztanleria osoan, baina ez gazteen kolektiboan.

**EAE-n jaio eta PEREn atzerriko egoiliar gisa erregistratutako pertsonen bilakaera 2009-2016. 18 eta 34 urte bitarteko gazteak eta biztanleria osoa (Datu absolutuak)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko datuak oinarri hartuta (bizilekua atzerrian duten espainarren errolda da PERE)*

Euskal Autonomia  
 Erkidegoan jaio, 18-34  
 urte bitarteko adina izan  
 eta PEREn erregistratuta  
 dauden pertsonen  
 kopurua 2009tik 2016ra  
 bitartean % 7,7 jaitsi da

Beheko taulan jaso dira urtez urteko bilakaera eta, ehunekotan, igoerak edo jaitsierak, bai EAEn jaiotako pertsonen erregistro guztietarako bai 18-34 urte bitarteko gazteen kolektiborako.

**EAEn jaiotako eta PEREn erregistratutako pertsonen kopuruaren bilakaera, bai eta urtetik urterako aldaketaren ehunekoak. 18-34 urte bitartekoak eta biztanleria osoa. 2009-2016**


Urtea	18-34 urte bitartekoak (Datu absolutuak)	Gazteen % Jaitea / Gehikuntza	Biztanleria osoa (Datu absolutuak)	Biztanleria osoaren % Jaitea / Gehikuntza
2009	4.265		25.652	-
2010	4.028	- % 5,6	26.140	% 1,9
2011	3.740	- % 7,1	26.818	% 2,6
2012	3.633	- % 2,9	27.902	% 4,0
2013	3.586	- % 1,3	28.939	% 3,7
2014	3.576	- % 0,3	30.141	% 4,2
2015	3.747	% 4,8	31.416	% 4,2
2016	3.938	% 5,1	32.957	% 4,9

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INEk emandako datuak (PEREtik datozenak) oinarri hartuta*

Ehunekotan, 2009-2016 bitarteko beherakada % 7,7koa izan da biztanle gazteen taldean; EAEn jaio eta atzerrian bizi diren biztanle guztiak batera hartuta, berriz, % 28,5eko gorakada izan da 2009-2016 bitartean.

Euskal Autonomia Erkidegoan jaioak izan eta PEREn erregistratuta dauden hamar gaztetik zazpi Europan bizi dira. 2009-2016 bitartean, ordea, behera egin du Europan bizi direnen kopuruak eta, alderantziz, apur bat gora egin du munduko gainerako herrialdeetan bizi direnen kopuruak.

**EAEn jaio eta atzerrian bizi diren 18-34 urte bitarteko gazteen kopuruaren bilakaera 2009-2016, Europan edo Europatik kanpo bizi diren bereiztuta. (Datu absolutuak)**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko datuak oinarri hartuta (bizilekua atzerrian duten espainarren errolda da PERE)*

2016an Europa da PEREn erregistratutako Euskadin jaiotako gazte emigranteen % 71ren helmuga, baina 2009tik aurrera kontinente horretako egoiliarren kopurua apur bat jaitsi da

EAEEn jaiotako 18-34 urte bitarteko pertsonen erregistro gehien duten Europako herrialdeak Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania dira. 2009tik 2016ra bitartean Frantzia eta Erresuma Batuan jaitsi egin da erregistratutako pertsonen kopurua, eta Alemanian, aldiz, kopuruak gora egin du.

**EAEEn jaio eta atzerrian bizi diren 18-34 urte bitarteko gazteen kopuruaren bilakaera 2009-2016, Europan edo Europatik kanpo bizi diren bereiztuta. (Datu absolutuak)**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko datuak oinarri hartuta (bizilekua atzerrian duten espainarren errolda da PERE)*

Alemanian dauden Euskadin jaiotako gazteen kopuruak gora egin du, baina oraindik ere Frantzia eta Erresuma Batua dira erregistratutako Euskadiko gazte egoiliar gehien duten herrialdeak



EAEn jaio eta atzerrian bizi diren 18-34 urte bitarteko gazteen batez besteko adina ia urte bat jaitsi da 2009tik 2016ra bitartean. Orain 29,2 urtekoa da.

**EAEn jaioak izan, atzerrian bizi diren eta PEREn erregistraturik dauden 18-34 urte bitarteko pertsonen batez besteko adinaren bilakaera 2009-2016 (adina urtetan)**




*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko datuak oinarri hartuta (bizilekua atzerrian duten espainarren errolda da PERE)*

EAEn jaioak izan eta PEREn erregistratutako 18-34 urte bitarteko gazteen batez besteko adina 29,2 urtekoa da, eta erregistratutako emakumeak gehixeago dira gizonezkoak baino

PEREko datuak adin-taldeka aztertuta, PEREn erregistratutako hamar gaztetik seik 30-34 urte bitarteko adina dutela ikus daiteke.


**EAEn jaiok izan, atzerrian bizi diren eta PEREn erregistraturik dauden 18-34 urte bitarteko gazteen bilakaera, adin taldeen arabera. 2009-2016 (Datu**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko datuak oinarri hartuta (bizilekua atzerrian duten espainarren errolda da PERE)*

Urte guztietan neskak gehiago izan dira mutilak baino, baina azken urteotan ehunekoak elkarri hurbiltzen joan dira. Kopuru absolututan, 2016an EAEn jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko 2030 emakume daude erregistratuta PEREn (atzerrian bizi diren espainiarren erroldan), eta gizonak, berriz, 1.908 dira.


**EAEn jaiotako izan, atzerrian bizi diren eta PEREn erregistraturik dauden 18-34 urte bitarteko gazteen bilakaera, sexuaren arabera. 2009-2016 (Datu absolutuak)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko datuak oinarri hartuta (bizilekua atzerrian duten espainiarren errolda da PERE)*

Lurralde historikoka, Gipuzkoa da erregistrarako gazte gehien jarri duen lurraldea. Lurralde horretan jaiotako gazteak PEREn erregistratutako gazteen % 44,2 dira, eta 2016an 1739 Gipuzkoako gazte inskribatu dira. Bizkaia azpitik dago, % 43,6ko portzentajearekin eta 1715 gazte erregistraturik ditu, eta Arabak % 12,3 jartzen du, hau da, 484 gazte.

**EAEEn jaiotako izan, atzerrian bizi diren eta PEREn erregistraturik dauden 18-34 urte bitarteko gazteen bilakaera, lurralde historikoen arabera. 2009-2016 (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina INE-k emandako PEREko (bizilekua atzerrian duten espainarren errolda) datuak oinarri hartuta*

Ohartarazi beharra dago EAEko 18-34 urte bitarteko gazteak honela banatzen direla lurralde historikoen artean: Araban adin horretako gazteen % 14 bizi dira, Bizkaian % 53 eta Gipuzkoan % 33. Beraz, gazte gipuzkoarrak gainordezkatuta daude atzerrian. Frantzia hurbil egotea da horren arrazoia: 2016an Frantzian bizi dira Gipuzkoan jaiotako izan eta PEREn erregistratuta dauden gazteen % 44,5.

Gipuzkoan jaiotako gazteek emigratzen dute gehien PEREko datuen arabera. Frantzia hurbil edukitzea da horren arrazoia; atzerrian bizi diren gazte gipuzkoarretatik % 44,5 Frantzian bizi dira

## 2. Migrazio-mugimenduei buruzko Eustaten estatistika

Migrazio-mugimenduei buruzko Euskal Estatistika Erakundearen estatistikak informazioa ematen du EAeko udalerrietan abiapuntua edo helmuga duten bizileku-aldaketei buruz, biztanleen udal-eroldan oinarrituta. Estatistika horrek urte jakin bateko irteeren eta sarrerren berri ematen du, baina ez du erakusten zenbat pertsona dauden une jakin batean atzerrian, eta ez du daturik ematen pertsona horien ezaugarriez edo atzerrian duten lan-egoeraz. Udal-eroldan baja eskatu eta atzerrira joan diren gazteen sexua baino ezin dugu jakin.


Datu horietatik abiatuta, Gazteen Euskal Behatokiak bere [online estatistika-bankuan](#) bi adierazle elikatzen ditu: batetik, EAEn jaiotakoak izan eta urte jakin batean atzerrira emigratu duten 18-34 urte bitarteko gazteen kopurua, eta, bestetik, atzerritik itzultitakoen tasa, hau da, EAEn jaiotakoak izan eta urte jakin batean atzerritik itzuli diren 18-34 urte bitarteko gazteen proportzioa, EAEn jaiotakoak izan eta epe berean atzerrira emigratu duten adin bereko gazteen kopuru osoaren aldean.

- **Abiapuntua edo helmuga atzerrian duten urteko sarrerak eta irteerak**

Migrazio-mugimenduei buruzko Eustaten estatistikak erakusten duenez, 2012tik 2014ra bitartean gehitu egin dira EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteen atzerriratzeak. Atzerrirako emigrazio horiek 2014an iritsi dira azken hamarkadako kopururik handienara: 18-34 urte bitarteko 705 pertsona.

Atzerritik itzultzen diren gazteen kopuruari dagokionez, joera beheranzkoa izan da krisia hasi zenetik, 2008tik, eta 2012an itzuli da pertsona gutxien (187), baina 2014an kopuruak gora egin du, EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko 303 pertsona itzuli baitira EAera.

**Abiapuntua eta helmuga atzerria izanda, EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteen migrazio-mugimenduen bilakaera, 2004-2014 (Datu absolutuak)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina EUSTAT-ek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio-mugimenduen estatistikatik datozenak)*

Erregistro ofizialetan jasota dauden atzerriratzeen arabera, 2014an Euskadin jaiotako 705 gazte atzerriratu ziren 2014an. Datu hori 2004tik inoiz erregistratutako handiena da

Itzulitako gazteen kopuruak nabarmen egin zuen gora 2014an, eta krisiaren aurretik, 2006an, izandako zifrara iritsi zen berriro

2014an 18-34 urte bitarteko 705 pertsona joan ziren atzerrira: % 35 izan ziren, EAEn jaiotako gazteen irteeren guztizko kopuruaren barruan (guztira 1.985 pertsona irten ziren EAetik). Gainerako % 65ek Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetara emigratu zuten.

EAEn jaiotakoak izan eta 2014an atzerrira irten ziren gazteen % 48,5 gizonak ziren eta % 51,5 emakumeak, eta batez beste 28,9 urteko adina zuten. Datu horiek bat datoz PEREK eskainitakoekin.

- **Itzulera-tasa**


Itzulera-tasa lortzeko, kalkulatu behar da EAEn jaio, 18-34 urte bitarteko adina izan eta atzerritik EAera itzuli diren gazteak ehuneko zenbat diren, EAEn jaio, 18-34 urte bitarteko adina izan eta aztergai den aldian atzerrira emigratu duten pertsonen kopuruaren aldean.

Itzuleraren azterketan 18-34 urte bitarteko gazteak bakarrik hartzen dira kontuan, nahiz eta, ziur asko, aztertutako aldian emigratzen duten pertsonetariko asko 35 urte bete eta gero itzuliko diren EAera. Dena dela, tasa hau kalkulatzeko baliagarria izan daiteke gazteen emigrazioaren jarraipena egiteko.

Puntu honetan aipatu beharra dago migrazio-mugimenduen estatistikak, hau da, erabilitako datuen iturriak, ez dituela aztertzen norbanakoen bizi ibilbideak, eta, beraz, ez duela erregistratzen pertsona jakin bat emigratu eta gero itzuli ote den. Urte jakin batean bizileku-aldaketak direla-eta erroldan izandako alden eta baje kopuruak baino ez ditu eskaintzen. Beraz, itzulera-tasa adierazle gisa erabil daiteke, zehaztu ahal izateko emigratzen duten gazteetatik, oro har, zenbat itzultzen diren EAera 35 urte bete aurretik.

2014an itzulera-tasa % 43 izan zen, 2011koa, 2012koa eta 2013koa baino handiagoa eta 2007koaren parekoa.

**EAEn jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteen itzulera tasaren bilakaera. 2004-2014 (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina EUSTAT-ek emandako datuak oinarri hartuta (Migrazio -mugimenduen estatistikatik datozenak)*

Itzulera-tasa 2014an % 43raino igo zen. Hau da, atzerrira emigratu zuten 18-34 urte bitarteko hamar pertsonako lau itzuli ziren

Tasa hori 2011-2013 bitartean izandakoak baino handiagoa da, eta 2007koaren antzekoa

EAEEn jaiok diren eta gaur egun EAEEn bizi diren 18-34 urte bitarteko hamar gaztetik batek (% 9,6) inoiz atzerrian lan egin du

### 3. Gazteen Euskal Behatokiaren ikerlanetako datuak

- **Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen lan-esperientzia atzerrian**

Gazteen Euskal Behatokiak 2015eko azaroan EAEko gazteen lagin adierazgarri bati etxez etxe egindako inkestak hurbilketa bat eskaintzen digu gazteek atzerrian izaten duten lan-esperientziari buruz.

Interesatzen zaigun datua lortzeko, inoiz atzerrian lan egin duten galdetu diegu, besterik ez (albora utzita nazioarteko bestelako esperientziak, hala nola bidaiak edo ikasle-trukeak), eta Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako pertsonen erantzunak soilik hautatu ditugu, zeren eta, jakina, atzerrian jaiotako eta gaur egun EAEEn bizi diren pertsonen euren sorterritik ekarritako lan-esperientzia izan baitezakete, eta inguruabar hori ez da azterketa honen gaia.


EAEEn jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteen % 9,6k eduki dute bizitzan zehar lan-esperientziaren bat atzerrian. Ez da kontuan hartu zenbat iraun duen lan-esperientzia horrek. Horrenbestez, zenbaki absolututan, 35 urtetik beherako 30.000 gazte inguru inoiz atzerrian lanean aritu dira eta Euskal Autonomia Erkidegora itzuli dira. Esperientzia horrek barruan hartzen ditu ikasketak eta bekaz lagundutako ikerketak, atzerrian eginak badira.

Inoiz –aldi labur batez bada ere– atzerrian lan egin dutela diotenek, batez beste, 29 urte dituzte. Gutxi gorabehera erdiak neskek eta erdiak mutilak dira, eta lurralde bakoitzak biztanlerian duen pisuaren proportzioan banatuta daude.

Adina igo ahala, atzerrian lan-esperientzia izandakoen ehunekoa ere igo egiten da: 18-24 urte bitarteko taldean % 4,1ekoa da, eta 25-34 urte bitarteko taldean, berriz, % 12,1ekoa.



**EAEEn jaiok izan eta atzerrian lan-esperientzia izan duten 18-34 urte bitarteko gazteak, bizi diren lurralde historikoaren, sexuaren eta adin taldeen arabera. 2015 (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015*


Atzerrian lan-esperientzia izan duten gazte gehienek goi mailako ikasketak egin dituzte, badakite ingelesez eta gaur egun lanean dihardute

Lautik hiruk (% 75,1) goi mailako ikasketak dituzte (unibertsitate-ikasketak edo goi mailako heziketa-graduak) eta ingelesez ondo hitz egiten omen dute (% 72).

Ia bi heren (% 63,4) gaur egun lanean ari dira, jarduera nagusi gisa. Atzerrian inoiz lan egin ez dutenen taldean, ehuneko hamar gutxiago ari dira lanean (% 52,2).

Atzerrian lanean egindako batez besteko denbora 8 hilabete da, baina datu hori engainagarria izan daiteke, pertsona gutxi batzuek bi urte baino gehiago egin dituztelako. Erdiek (% 53,5) lau hilabete baino gutxiago eman dute atzerrian lanean, % 20k lau-sei hilabete, % 11,4k zazpi hilabete eta urtebete bitarte, eta % 15,1ek urtebete baino gehiago.

**EAEn jaiok izan eta atzerrian lan-esperientzia izan ondoren Euskadira itzuli diren 18-34 urte bitarteko gazteen egonaldiaren batez besteko iraupena. 2015 (%)**



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015*

Egonaldia luzatzen hasten da 25 urteko adinetik aurrera. Hala, 25-34 urte bitartekoetatik % 20,5ek urtebete baino gehiago egin dute atzerrian lanean.

**EAEn jaiok izan eta atzerrian lan-esperientzia izan ondoren Euskadira itzuli diren 18-34 urte bitarteko gazteen egonaldiaren batez besteko iraupena, adin taldeen arabera. 2015 (%)**

	18-24 urte	25-34 urte
1-3 hilabete	64,5	49,3
4-6 hilabete	26,9	17,7
7-12 hilabete	8,6	12,5
12 hilabete baino gehiago	0,0	20,5
Guztira	100	100

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015*

Atzerrian lan egin ondoren itzuli direnek egonaldi laburrak egin dituzte. Erdiek 4 hilabetetik beherako egonaldia egin dute

Atzerrian lan-  
esperientzia duten  
gehienak praktikak  
egiteko atzerriatu ziren,  
edo ikasketa-beka jasota,  
edota esperientzia  
berriak bizitzeko eta  
hizkuntzak ikasten  
jarraitzeko

Lanik ezagatik % 7,9k  
baino ez zuten emigratu

Erdiak (% 52,2) ikerketa-beka jasota edo ikasketa-praktikak egitera joan ziren atzerriara, edo lan egiten zuten enpresak aldi baterako atzerriara bidali zituelako. Beste batzuk, % 25,7, esperientzia berriak bizi eta beste lurralde batzuk ezagutu, hizkuntzak ikasi eta abar egin nahi zituelako joan ziren. Eta % 7,9k bakarrik erantzun dute ez lanik ez lana bilatzeko aukerarik ez zituelako atzerriatu zirela. Gainerakoek erantzun dute garai hartan atzerrian ikasten ari zirela eta lan egiten zutela diru apur bat irabazteko, edo atzerrian bizi zirela familiarekin, edo erantzunen zerrendan ez dagoen beste arrazoiren batengatik joan zirela.

**EAEEn jaioak izan eta atzerrian lan-esperientzia izan ondoren Euskadira itzuli diren 18-34 urte bitarteko gazteek atzerriara joateko adierazi dituzten arrazoi nagusiak, adin taldeen arabera. 2015 (%)**

	Guztira	18-24 urte	25-34 urte
Atzerrian ikertzeko beka edo ikasketetako praktikaldiak egiteko aukera eman zizutelako	34,5	64,4	30,1
Enpresak agindu zituzelako	17,7	5,3	18,6
Esperientzia berriak bizi nahi zenituelako eta beste leku batzuk ezagutzeko edo hizkuntzak ikasteko	25,7	10,7	27,4
Hemen ez zenuelako lanik ezta izateko aukerarik ere	7,9	0,0	10,8
Momentu horretan atzerrian ikasten zenbilen eta dirua irabazi nahi zenuen	4,6	0,0	5
Beste arrazoi bat	9,7	19,6	1,3
Guztira	100	100	100

*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015*


Atzerriara lanera joateko arrazoi gisa, 25 urtetik aurrerakoek soilik aipatu dute lanik ez izatea. Hain zuzen ere, 25-34 urte bitartekoen % 10,8k aipatu dute arrazoi hori.

Itzultzeko arrazoiei dagokienez, erdiek (% 51,6) esan dute atzerriko lana, beka edo praktikak aldi mugatu baterako zirela, eta % 10,9k esan dute atzerrian egiten ari ziren ikasketak amaitu zituztenean atzerrian lan egiteari ere utzi ziotela. Bestelako arrazoiak aipatu dituztenak gutxiago dira: itzultzeko gogoia zeukatela (% 8,2), familiarekin batera hona etorri zirela bizitzera (% 6,7), hemen lana bilatu zutela (% 5,5), eta, azkenik, lana eduki arren ez zeudela gustura (% 3,8).

Joan-etorrietarako aukeren gehikuntzak eta atzerriko praktiken eta ikasketen hazkundeak areagotu egin dituzte gazteek beste herrialde eta errealitate batzuekin dituzten harremanak. Harreman horiek etorkizunean emigratzeko aukerak ugaritzen dituzte. Atzerrian lan motaren bat egin dutenek etorkizunean esperientzia errepikatzeko gogo handiagoa dute inoiz atzerrian lanik egin ez dutenek baino. Dagoeneko atzerrian lan egin dutenetatik % 64,7 emigratzeko prest egongo lirateke lan interesgarria eskainiko baliete. Atzerrian inoiz lanik egin ez dutenen artean portzentaje hori % 39,6ra jaisten da.

Atzerrian esperientzia eduki duena prest egoten da berriro atzerriratzeko, lan interesgarria eskaintzen badiote

**EAEen jaiotako 18-34 urte bitarteko gazteak atzerrian lan egiteko prest ote dauden, aurretik atzerrian izandako lan-esperientziaren arabera. 2015 (%)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2015

Euskal Autonomia  
Erkidegoan jaiotako  
gazteetatik % 2,6k  
badaukate 35 urtetik  
beherako neba-  
arrebaren bat gaur egun  
atzerrian lanean

- **Atzerrian lanean ari diren gazteenganako zeharkako hurbilketa**

Gazteen lan-emigrazioaren zati bat, atzerrian lanean aritu eta gero itzuli direnei galdetuz ezagutu dezakeguna, esperientziak edota ezagutzak eskuratzeko motibazioek eragiten dute. Atzerrian irauten dutenen egoera eta arrazoiak ziur asko desberdinak izango dira.

2016ko lehenengo hiruhilekoan, Gazteen Euskal Behatokiak hurbilketa bat egin du arrazoi horiek ezagutzeko eta gaur egun atzerrian lanean ari diren gazteen kopurua zenbatesteko.

Horretarako 15-29 urte bitarteko 1500 gazteri galdetu die ea 35 urtetik beherako neba-arrebaren bat duten atzerrian lanean.

Berriro ere, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako pertsonen erantzunak bakarrik hautatu ditugu eta kalkuluan ez dira kontuan hartu atzerrian jaiotako gazteen erantzunak, ziur asko gazte horiek badituztelako senideak atzerrian bizi izaten eta, beraz, atzerrian lan egiten dutenak.

Kontuan izanik badirela seme edo alaba bakarreko familiak eta seme edo alaba hori atzerrian badago inork ezin izan duela haren erreferentziarik eman, eta, bestalde, 30 urtetik beherako gazteei bakarrik galdetu zaiela, baina litekeena dela atzerrian 35 urtetik beherako gazteren bat egotea hemen 29 urtetik gorako neba-arrebak dituenak, emaitza benetako zifra baino txikiagoa izango da inondik ere.


Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako 15-29 urte bitarteko gazteen % 2,6k erantzun dute badaukatela 35 urtetik beherako neba-arrebaren bat atzerrian lanean.

Elkarrizketatuen neba-arrebak zergatik ari diren atzerrian lanean galdetu dugunean, lanerako aukerarik eza izan da gehien aipatutako arrazoiak. Espero genuen bezala, aldeak daude lan-egonaldi laburra egin ondoren itzuli direnen eta gaur egun atzerrian daudenen artean. Gaur egun atzerrian lanean ari diren hamar pertsonatik ia lau (% 37,9) lanik eta lanerako aukerarik gabe zeuden eta lan bila emigratu dute.

**EAEEn jaio eta atzerrian lanean dabiltzan 35 urtetik beherako gazteen atzerriratzeko arrazoiak, hemen bizi diren 15-29 urte bitarteko neba-arrebek emandako azalpenen arabera. 2016 (%)**

Lanik eza eta lana bilatzeko aukera urriak izan dira emigratzeko arrazoi nagusiak gaur egun atzerrian lanean ari diren EAEko hamar gaztetik ia laurentzat

Zifra zehatza emateko zailtasunak gorabehera, gazterian lan ezarekin zerikusia duten arrazoiengatik atzerriratutakoek duten pisua % 1 ingurukoa dela esan daiteke



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, 2016*

Kontuan harturik atzerrian lan-esperientzia izan ondoren itzuli direnek eman dizkiguten arrazoiak, bai eta gaur egun atzerrian lanean ari direnen neba-arrebek argudiatutakoak eta gazteen artean, oro har, horiek duten pisu erlatiboa, ondorio gisa esan dezakegu EAEEn jaiotako 35 urtetik beherako gazteen % 1 inguruk emigratu dutela lanik ezarekin zerikusia duten arrazoiengatik.

#### 4. Conclusiones

- ✓ Euskaditik atzerrira doazen gazte gehienak atzerrian jaiok dira eta beren jatorrizko herrialdeetara itzultzen dira. Errealitate hori abiapuntutzat hartuta<sup>1</sup>, txosten honen aztergaia Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emigrazioa da eta bere helburua diagnosian oinarritutako itzultzeko neurriak diseinatzeko laguntzea. Helburua hori bada ere, ez diogu garrantzia kentzen Euskadin gazte atzerritarrek izateari eta erakartzeari, beharrezkoak baitira gure biztanleriaren zahartzea arintzeko.
- ✓ Administrazio-erregistroek eta Euskadin bizi diren gazteei egindako inkestek emandako informazioa, nahiz eta errealitate osoa ez islatu eta mugatua izan, gazteen emigrazioren nondik norakoak aztertzeko beharrezko hurbilketa da
- ✓ Administrazioaren erregistroek adierazten dute azken urteotan zertxobait murriztu direla atzerrian bizi diren Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko gazteak. Era berean gazte horien itzulera-tasa handixeagoa da azken urteetan.
- ✓ Euskadin jaiotako 18 eta 34 urte bitarteko hamar gaztetik batek noizbait lan egin du atzerrian eta Euskadira itzuli da. Horietako gehienak praktikak egitera joan ziren, ikerketarako bekadunak ziren edo esperientzia berriak bizi izatera edo hizkuntzak ikastera joan ziren. Itzuli direnen % 10 baino gutxiagok diote lan eza dela eta emigratu zutela.
- ✓ Orain atzerrian lanean dabilzanenganako zeharkako hurbilketak adierazten digu 2016an Euskadin jaiotako 35 urtetik beherako gazteen % 1 atzerrian dagoela hemen ez duelako lan aukerarik. Zeharkako hurbilketa hori Euskadin dauden gazte horien neba-arrebek emandako erantzunetan oinarritzen da.

<sup>1</sup>Ikusi "Euskadiko gazteen migrazio-mugimenduen azterketa" izeneko txostena, Gazteen Euskal Behatokiak 2013an kaleratu zuena: [http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/estadistikak\\_2013/eu\\_6778/adjuntos/berria\\_tasa\\_retorno\\_13\\_e.pdf](http://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/estadistikak_2013/eu_6778/adjuntos/berria_tasa_retorno_13_e.pdf)

